

ARABIA IRUDIKAPEN GARAIKIDEAK. DISKURTSO KRITIKOAK ETA PENTSAMENDU POLITIKOA

Alderdi islamistak eta alternatiba demokratikoa herrialde arabiarretan, Nadia Yassine

Mundu arabiarra ez da bloke monolitiko bat, Mendebaldea ere ez den bezalaxe. Nadia Yassinek, *Justizia eta izpiritualtasuna* mugimendu islamista marokoarraren emakumezkoen atalaren eledun eta arduraduna bera, posible ikusten du zibilizazio bien arteko lotura puntuak aurkitzea, ez baitute, Samuel Huntington-ek 1997an beste gauza bat planteatu arren, ezinbestean elkarren aurkako borrokan zertan aritu. New Yorken irailaren 11n eta Madrilen martxoaren 11n izandako atentatuen ostean, Huntingtongen planteamenduak sustrai sakonak egin ditu gizarte mendebaldarretako sektorerik kontserbadoreenen artean, kolonialismoa justifikatu zuten tesi kulturalista eta esentzialista zaharrak atzera berpiztuz. "Baina mintegi hau bezalako ekimenek –azaldu zuen Nadia Yassinek *Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa* mintegiaren bosgarren jardunaldian eginiko ekarpenean zehar- lagundu egiten dute hausnarketarako eta elkarriketarako espazio bat abian jartzen, hain zuzen aurreiritziak gainditu eta denontzako etorkizun habitagarri bat elkarrekin eraikitzea ahalbidetuko digun espazio bat".

Mendebaldeko hedabideetan, joera izaten da mugimendu islamista erradikalak (gutxiengo bat besterik ez dira) eta erreformistak (onarpen handia dute herri mailan) ez bereizteko, ulertaraziz horrenbestez azken batean txanpon beraren bi aldeak direla. Horrela, mundu islamikoa, berez, demokraziarekin bateraezina dela jotzen da, eta herrialde musulmanen egoera politikoa zehatz-mehatz aztertzen duen eztabaida bat bultzatu beharrean, aurretik epai bat ematen da; eta epai honek, Nadia Yassineren iritziz, Islama goitik behera jartzen du zalantzan. XIX. mendeko orientalismoa bezala, ikuspegi esentzialista eta kulturalista berri hau mundu arabiarra egitura sozial eta politiko aurre-moderno batean ainguratuta dagoen ideiatik abiatzen da, ulerturik gainera horretatik irteteko aukera bakarra (Mendebaldearen aholkuei jarraiki inolaz ere) Islamaren zama gainetik kentzea izango duela.



Diskurtso esentzialista berri honek gizarte mendebaldarraren "berezko bilakaeraren emaitza garbitzat" ikusten du demokrazia, alde batean utziz demokraziaren existentzia (gainera, partziala eta behin-behinekoa da) arazo eta desbideraketaz betetako ibilbide historiko gorabeheratsu eta kaotiko baten ondorioa dela.

Mendebaldeko demokraziek ordezkatzeko duten aurrerapen idealaren aurrean, Islama gauza ilun eta mehatxagarritzat ikusten da, mundu zibilizatuaren egonkortasun eta oparotasuna mehatxatzen duen sistema teokratiko batek bizirik iraungo balu bezala bertan. Maila politikoan, musulmanak genetikoki despota eta erregimen feudalen mende geratzeko programatuta daudela jo ohi da, eta herrialde islamikoen historia "ikaragarrikerien museo" suete bat izan dela.

"Gauzarik larriena, dena den –egin zuen ohar Nadia Yassinek-, zera dugu, diskurtso esentzialista hau ez dela maila teorikora mugatzen, baizik eta ekintza politiko zehatzen arabera ere adierazi egiten dela, Bushen administrazioaren edo Sharonen gobernuaren gerra-erabakiek erakusten duten moduan". Eta XIX. mendeko orientalismoa kolonialismoaren aurrekaria izan bazen, Nadia Yassineren beldurrik behiena da pentsamendu politiko esentzialista berri honek berekin ekartzea Mendebaldearen nagusitasuna zibilizatzeko argudioen bidez justifikatzen duen tirania kulturalistaren gaurkotze bat. Ez dugu ahantzi behar mundu islamikoan hau guztia kultur eraso baten antzera ikusten dela, eta biztanleriaren sektore zabaletan gero eta indartsuago agertzen ari dela nortasunaren sendotze bat bilatu beharra Mendebaldearekiko oposizio edo aurkaritzan. Halaz, giro ezin hobea sortzen da izaera antidemokratikoa mundu musulmanaren nortasun ezaugarritzat defendatzen duen kontra-diskurtso bat gauzatzeko. "Eta –Nadia Yassinek aitortu moduan- islamismo erreformista bera ere ez da joera horretatik erabat libre geratu".

Edonola ere, Nadia Yassineren iritziz –*Justizia eta izpiritueltasuna* mugimenduaren fundatzaile Sheyja Abdesalam Yassineren alaba da Nadia-, erreakzio horren azalpena Islametik haratago bilatu behar da. Herrialde arabiarretan, duela gutxi kolonizazioaren oroitzapena (gogoan izan behar dugu duela lau hamarkada lortu zutela nazio hauek bere independentzia) ez da aienatu hiritarren irudi-mundutik, eta hauek Mendebaldeari buruz duten ikuspegiak gertakizun historiko horrek baldintzatuta jarraitzen du. Gaur egun, bere burua definitzeko unean, kolonizatzaileak (garaileak, Mendebaldea) eta kolonizatuak (garaituak, Ekialdea) bereizten eta aurrez aurre jartzen dituen harreman dialektiko horretatik kanpo kokatzeko gaitasunik gabe jarraitzen dute musulmanek. "Honek –dio Nadia Yassinek- mugatu egiten gaitu, eta blokeatu, zeren eta gure nortasuna negatiboan eraikitzea behartzen baikaitu (Mendebaldea demokratikoa bada, gu orduan demokraziaren aurkakoak gara); eta gainera galarazi egiten digu gure geure bidea aurkitzea herrialde mendebaldarrekiko alderaketarik ezartzeko edo tartea uzteko obsesiorik gabe".

Eyal Sivanek *Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoak* mintegiaren lehen jardunaldian adierazi zuen moduan, oroimen historikoa bideratu eta erabili egin daiteke (datu batzuk aukeratuz eta beste batzuk "ahantziz"), eta bide batez herri baten menderatzea bultzatu. Mundu islamikoari kendu egin zaio bere oroitzapenetako zati handi bat, eta horrek eragotzi egin dio gaur egungo egoera asko ulertzea eta, etorkizuna eraikitzeko erreferentzia ereduak aurkitzeko ahaleginean, bere historiara jo ahal izatea.

Diskurtso esentzialistak historiaren erabilpen edo baliatze horretara jotzen du, musulmanak demokraziaren berezko etsaiak direla argudiatzeko. XIX. mendeko orientalista europar batzuek, H. Laoust-ek esate baterako, deskripzio lan ona egin zuten Islamaren zisma handien jatorri historikoari eta adar sunniaren eta xiaren sorrerari buruz. Baina Nadia Yassineren iritziz, haiek oso azaleko mailan geratu ziren, fundazio-gertaera horietako askoren konplexutasuna ulertzeke, halako moduan ezen jo izan zuten azken mendeotan zehar herrialde islamikoetan izandako erregimen autoritarioak Profetaren irakaskuntzen jarraipen logikoa zirela (eta, Yassineren ustez, zeharo bestelakoa da kontua).

Osterantzean, mundu islamikoak ez du bere botere teoriarik, legitimatzeko eta betikotzeko bidean botereak baliatzen dituen mekanismoei buruzko gogoetarik eskaini duenik. Gainera, gai honi ekin dioten autore apurrek ere "autokrazia" hartu dute gizarte islamikoetarako sistema politiko egokientzat. Esate baterako, Ibn Taymya (wahhabismoan oso eragin handiko teologoa bera) despotismoko urtebete bat gobernaririk gabeko gau bakar bat baino nahiago zuela esatera iritsi zen. Ildo honetatik, bere *Democracias sin demócratas* liburuan Ghassan Salamék bere buruari galdetzen zion zein "barne hauskortasun" ote zegoen gizarte arabiarretan, ezen hauskortasun horren eraginez autore hauek nahastu egiten baitzituzten autoritate beharra, ulergarria inolaz ere, eta despotismoaren justifikazioa. Jatorriz yemendarra den Zayd Bnou pentsalari xiitak, bere *Al Fardya* obran, gogora ekartzen digu Profetaren hitzetan ez dagoela egungo arau demokratikoekin bateraezina den ezer.

"Izan ere –esan zuen Nadia Yassinek-, Profetak gizarte kohesiorako tresnatzat ikusten zuen boterea, norbanakoaren garapen izpirituala eta zuzentasun publikoa bermatzeko tresnatzat". Koranean bertan ageri da komunitate nozioa –komunitatearen batasunak jainkotasunaren erabateko batekotasuna islatu behar du- eta herriaren subiranotasuna legitimitate sakratutzat deskribatzen da. Aldi berean, Profetaren garaietan (epe honetan sartzen dira lehenbiziko bost kalifaldiak) dagoeneko onartu zen boterea antolatzeko eta gauzatzeko unean bilakaera behar zela, horretarako, eta abiapuntu gisa, testua testuingurura moldatuz (hots, garaian garaiko sentsibilitateak eta zertzeladak harturik kontuan). Konparazioa, Omarren agintaldian zehar (634-644) teknika berritzaileak jarri ziren abian finantza publikoen kudeaketarako, eta botereak bereiztea proposatu zen. "Hau da –azpimarratu zuen Yassinek-, erlijio musulmanaren jatorrietara begiratu orduko ikusten dugu demokrazia eta fede islamikoak bateragarriak direla".



Alabaina, Moabeko matxinadaz alderanzketa bat gertatu zen Koranen irakaskuntzetan oinarritutako askapen demokratikoko prozesu honetan, hala maila politikoan nola teologikoan. Profetaren garaian herriaren subiranotasuna zen sakratua, baina alderanzketa horren ondotik boterea bera izan zen sakratutzat jotzen hasi zena. "Botereak –azpimarratu zuen-, ordu arte Mezuaren zerbitzuean zegoela, Mezua jarri zuen bere zerbitzuean". Koraneko bertsoak erabili egin zituzten sortzen ari zen botere berriaren finkapena ahalbidetzeko, eta Profetak aldarrikatutako kontsensuaganako maitasuna barne disidentziak borrokatzeko eta eztabaida politikoa saihesteko baliatu zuten. Lehenbiziko bi kalifen (Abu Bakr eta Omarren) garaia neurritz kanpo idealizatzen da, testuaren izaera sakratu eta aldaezina azpimarratuz (horrenbestez, testuak ez du testuingurura zertan egokitu).

Sakratutasunaren transferentzia hori bi tresna nagusiren bidez gauzatu zen: sare administratibo eta burokratiko trinko bat sortuz, berau klan eta familia boteretsu zenbaiten interesen mendekoa baitzen; eta hedapenerako espazio erlijiosoak (batik bat meskitetako ostiraletako sermoiak) baliatzen zituen propaganda sistema sofistikatu bat abian jarriz, kalumnia eta manipulazio ideologikoan zein bortizkerian oinarrituta. Botere autokratiko hau sendotzeko, ulemen eginkizuna ere tresna gisa erabili da; hauek gizarte zibil moduko bat dira mundu musulmanean. Hasiera batean, ulemen eginkizuna herriaren eta agintarien arteko bitartekaritza zen, eta gobernariaren gehiegikeriak bridatzen zituen kontra-botere suerte bat ziren. Baina pitinka-pitinka bazterrean utzi dute eginkizun hori eta, batasunaren eta kontsensuaren izenean, boterearen zirrikituak estaltzera mugatu dira, kasu askotan gobernu autoritarioen konplize zuzen bihurtuz.

Beraz, halako oztopo historiko sorta bat izan da (teoria politiko propiorik eza, erregimen autokratiko eta ustelen iraupena, zapalkuntza kolonialista ...), eta horien eraginez mundu islamikoan ez dago botere despotikoaren aurkako "antigorputz intelektualik". Gainera, globalizazioak berekin dakarren kultur homogenotze arriskua dela eta, gizarte musulmanaren sektore zabalak izan dira kanpo eragin oro errefusatzen duen nortasun-babeste batera jo dutenak, eta errefusatu dituzten eraginen artean demokrazia ere badago, mendebaldearen esku sartzetzat hartzen baitute. "Baina honek ez du esan nahi -azpimarratu zuen Nadia Yassinek *Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa* mintegian izan zuen partaidetzaren amaieran- mundu musulmanak, Islamaren idiosinkrasiagatik beragatik, autokrazia pairatu behar duenik ezinbestean, zeren eta, Zayd Bnou Ali Lwazir-ek ongi azaldu moduan, Koranen hitzetan ez baitago egungo arau demokratikoekin bateraezina den ezer". *Toutes voiles dehors* liburuaren egile Nadia Yassinerean iritziz, mundu islamikoan demokrazia garatzeko ezinbestekoa izango da nortasun kolektibo bat errebindikatzea, honen bidez musulmanei ahalbidetzearen, batetik, diskurtso eta politika kulturalisten eragin maltzurretatik askatzea eta, bestetik, botereari buruzko teoria propio bat lantzea.

ARGIBIDE GEHIAGO: <http://www.unia.es/artpen/mundo/mundo01/frame02.html>